

# DIRU-SARRERAK

Atal honetan azalduko dugu nola irabaziko dugun dirua, hau da, nola ordainduko duten gure bezeroek zerbitzu hau kontratatzeke asmoz.

Argi utzi nahi dugu gure enpresak bezeroen beharrak asetzea duela helburu nagusizat, dirua irabaztea baino. Hala ere, enpresa mantentzeko beharrezkoa da diru sarrerak edukitzea eta horretarako metodo batzuk erabiliko ditugu:

## ❖ “CROWDFUNDING” (Enpresa hasteko kapitala lortzeko)

Modu honekin gure helburua enpresaren sorrerarako kapitala lortzea da. Beste erakunde batzuen diruarekin gure enpresa sortuko dugu. Gure enpresa benefikoa denez gero, enpresa batek laguntza ekonomikoa egingo dutela espero dugu.

Diru hori eta gure kapitalarekin hau egingo dugu:

- Dendak eraiki
- Web orrialdea eta App sortu

## ❖ IRAGARKIEN BIDEZ

Gure web orrialdean eta sakelako App-an beste enpresei iragarkiak ipintzeko aukera emango diegu. Modu honetan, bi enpresek onurak edukiko ditugu:

- HME: beste enpresarekin negoziatutako kostua irabaziko dugu.
- Beste enpresa: kostua ordainduko du, baina publizitatea edukiko du.

Web orrialdean iragarkiak eskumaldean eta ezkerrean agertuko dira eta app-an ere bai.

## ❖ UDALETXEETATIK ETA EUSKAL JAULARITZATIK

Erakundeak izango dira gure bezero nagusiak. Beraz, gure helburua da hurrengo: udaletxeei gure proiektua saltzea. Horretarako, haiekin bilera bat egingo dugu eta enpresaburuok gure proiektua azalduko diegu. Aurkezpen bat antolatuta izango dugu eta aste bat ondoren, haien erabakia emango digute (enpresa kontratatu edo ez).

Udal batek kontratatu ostean, bere eskola eta institutu publiko guztien haien janaria hartzeko baimena izango dugu. Haiek, janaria eman nahi ez arren, behartuta izango dira janaria ematera. Janari hori hurbilen dagoen dendara eramango dugu.

